

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI ZINEA

'Mula' pelikula, asteburu honetan

Pelikula bakarra jarriko dute Biterin, asteburu honetan: *Mula*. Gaurko saioa gaueko 22:30etan izango da; bihar ere jarriko dute, 19:30etan eta 22:30etan; baita igandean, 19:30etan, eta astelehenean ere, 16:30etan. ||

■ HERNANI NAHIKARI DIOSDADO

«Hernanin aurkezteko gogoia neukan»

Urtarrilean argitaratu zituen Nahikari Diosdado hernaniarrak 'Desollada' eta 'Prácticas Mágicas' liburuak, eta gaur aurkeztuko ditu jendaurrean; liburutegian izango da, 18:00etatik aurrera.

IDAZLE gaztea da Nahikari Diosdado hernaniarra, baina dagoeneko lau liburu argitaratu ditu. Horietako bi aurkeztuko ditu gaur, liburutegian: *Desollada* eta *Prácticas Mágicas*. Horiek aurkeztuko ditu gaur, arratsaldeko 18:00etan hasita, liburutegian.

«Argitaletxe batekin argitaratzen dudan lehenengo aldia da», azaldu du. «Aurrekoetan, nik editatu ditut eta Amazonetik eta internetetik doan deskargatzeko jarri nituen», dio.

Publiko zabalarentzat

Urtarrilean argitaratu zituen Nahikari Diosdadok azkeneko bi liburu hauek. Orduan, «lagun batek esan zidan liburutegira jotzeko», eta horrexegatik egingo du gaurko ekitaldia: «Hernanin aurkezteko gogoia neukan, beste toki bazuetan ere izan naiz eta!».

Ondoren, 'Irakurketa Jakintsua' tailerra eskainiko du Alicia Perez Gil idazleak.

Herritar orori zuzenduko zaio gaur: «bi liburuak oso ezberdinak dira. Beldurra gustatzen zaionari, horietako bat gustatzen zaio; eta umorea gustatzen zaionari, aldiz, bestea. Hortaz, nahiko irekia izango da, publiko zabala etortzeko modukoa», dio berak.

Tailerra, ondoren

Aurkezpenaren ondoren, gainera, *Irakurketa Jakintsua* tailerra eskainiko du Alicia Perez Gil idazleak. Tailer laburra izango da, eta azalduko dute «nola aprobetxatu benetan irakurtzeko eskainitako denbora hori». ||



Nahikari Diosdado hernaniarra.

■ HERNANI SUTU HERNANI

Hirugarren bilera, gaur

Aurtengo San Joanak, edo Solstizio Jaiak, antolatuko bilera sorta egiten ari da Sutu Jaiak, eta gaur izango da hirugarrena. 18:00etan izango da, Kontrakantxa gaztetxean. ||

■ HERNANI KANTUZ ABESBATZA

Kantuz Eguna bihar, Milagrosan

Kantuz Eguna ospatzeko, kontzertua eskainiko du bihar Kantuz abesbatzak. Milagrosako kaperan izango da, 19:30etan hasita. Igor Arroyoren zuzendaritzapean eskainiko dute, eta Javier Perez pianojoleak lagunduko die erritmoa jartzen. ||

■ HERNANI PRESOAK

Presoen alde, bi hitzordu gaur

Presoen aldeko aldarrikapenari eutsiz, bi kontzentrazio deitu dituzte gaurko, Zinkoenean: 12:00etan egingo du LAB sindikatuak, eta 20:00etan, presoen senide eta lagunek. ||

■ HERNANI REIKI TALDEA

Saioak, gaur

Reikiko talde bolondresa gaur bilduko da Iturritxo elkartearen, goiz eta arratsaldean, 10:00etan eta 12:00etan, eta 16:45etan eta 19:45etan. Lokalean jarriko duten zerrendan eman ahal izango da izena. ||



■ HERNANI KIROLDEGIA

Uretan aritzeko aukera, ekainean zehar ere

5 eta 11 urte bitarteko gaztetxoek zuzendutako jarduerak aurkeztu ditu Kiroldegiak, ekainerako. Maiatzaren 2tik 20ra apuntatu ahal izango da, eta ekainaren 3tik 21era bitarte burutuko dira.

EKAINEAN eskoletan goizeko ordutegia dutela aprobetxatuta, uretan murgiltzeko hainbat jarduerara antolatu ditu kiroldegiak ekainean zehar burutzeko.

Hain zuzen, bost ikastaro berri eskainiko ditu, 5 eta 11 urte bitarteko gaztetxoentzat denak.

Ekainaren 3tik 21era bitarte Ekainaren aurreneko hiru asteetarako izango dira bost ikastaroak, 3tik 21era burutzeko, hain zuzen.

Egunero egingo dituzte ondorengo ikastaroak: 15:00etatik 15:45era, 5 urtekoentzat; 15:00etatik 15:45era, 6 urtekoentzat; 14:55etatik 15:45etara,

7-8 urtekoentzat; eta 14:55etatik 15:45etara 9 eta 11 urte bitartekoentzat.

Maiatzaren 20ra arte, izenematea

Ikastaro horietan aritzeko, orain dute aukera gaztetxoek; maiatzaren 20ra arte eman daiteke izena, kiroldegi-

giko bulegoan: 943 55 21 85 edo kiroldegia@hernani.eus.

Kiroldegitik azaldu dutenaren arabera, talderen batean dauden lekuak baino izenemate gehiago badaude, zozketa egingo dute. Maiatzaren 21ean goizeko 09:00etan izango da zozketa, kiroldegian bertan. ||

Etor zaitez
Aduna Garden
EZAGUTZERA!

Landareak
Lorezaintza
Baratztea
Eta gehiago

Zubitaki, 17
20150 Aduna (Bipuzkoa)
www.adunagarden.com

Aduna garden

Hernaniko aholkularitza batean
Kontabilitatean
esperientziadun
langilea behar dugu
Lanaldi osoko jarduna
Interesatuok deitu
697 359 800

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

GAUR Giro freskoarekin jarraituko du gaurko egunak, eta euria egingo du. Lainoak nagusituko dira ia egun osoan, eta euria utziko dute bazter guztietan. Ipar/ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da eta tenperatura maximo baxuak izango dira. **Min.9° / Max.14°**

BIHAR Antzeko eguraldia izango da, bihar. Iparraldeko haizeak, lainoak pilaziko ditu eta euri bikia ere utziko du. Tenperaturan ez da gorabeherarik izango, eta altuenak 15-16°-koak izango dira. **Min.9° / Max.15°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

ASTIGARRAGA MUSIKA ESKOLA

Herritarrei ateak irekita, Musika Eskola gertutik ezagutzeko aukera

Goizeko 10:00etan hasiko da jardunaldia, trikitixa, pandero eta txistularien eritmorra; Kontxa Etxeberria plazan zehar ibiliko dira, orduan.

URTEROKO zitari eutsiko dio aurten ere Astigarragako Norberto Almandoz Musika Eskola; ate irekien jardunaldiarekin, herritarrei gerturatuko diete eskola bihar. Goizeko 10:00etan hasita, musika herriko txoko guztietara eramango dute ikasleek.

Kaletik, Musika Eskolara Trikitixa, pandero eta txistulariak izango dira aurreneko protagonistak, goizeko 10:00etan hasita. Kontxa Etxeberria plazan zehar ibiliko dira, egunari aurreneko doinuak jarzzen. Ondoren, kontzertuak izango dira, plazan bertan:

Black & White eta Txistu taldea arituko dira. Handik, kalejiran joango dira Elizaraino, bertan kontzertu txikiak eta erakusketaz gozatu ahal izateko.

Kalejirak jarraitu egingo du Musika Eskolaraino, eta han, instrumentu bakoitzeko ikasle txikiak egingo dute saioa. ||

HERNANI NAPARDEATH

Festarekin bihar, 'Napardeath' filmaren aurrestreinaldia

'Ataun Of The Dead' trilogiaren azkeneko pelikula da hau; bi saio izango dira (19:00etan eta 20:30etan), eta gonbidapenak Biterin jaso daitezke.

BERRIRO ere Beñat Iturrioz hernaniarraren eskutik, *Ataun Of The Dead* trilogiaren azkeneko pelikula aurrestreinatuko dute bihar: *Napardeath*. Biterin eskainiko dituzte bi saio: aurrenekoa, 19:00etan, eta bigarrena, 20:30etan. Joan nahi duenak, Biteri kultur etxean jaso dezake gonbidapena.

Bi saio eskainiko dituzte: 19:00etan eta 20:30etan.

Festa, Kontrakantxan Hernaniarrekin jositako taldeak egina, Biterin botako dute aurreneko *Napardeath*, baita

ospatu ere. Kontrakantxa gaztetxean egingo dute *Napardeath* festa bi saioen ondoren, The Indezents eta Wolfram Muñagorri musika-jartzaileen laguntzarekin.

Aurrestreinaldia besterik ez da izango hau; Donostiako Antzoki Zaharrean estreinatuko baitute, etzi, 19:00etan. ||

ASTIGARRAGA MENDI IRTEERA

Pirinioetara joateko, azkeneko aukera

Pirinioetara egingo du asteburu pasa Mundarro Kirol Elkarteak, eta joan nahi duenak, gaur arte izango du aukera izena emateko. Horretarako, kiroldegira jo beharko da, bertara joanda edo *kiroldegia@astigarraga.eus* helbide elektronikoan. Gaur bertan, gainera, bilera egingo da, informazioa eman eta izena emandakoen artean plana antolatzeke. Asmoa da larunbarekin Ibon Anayet eta Vertice Anayet egitea, eta igandean, Betato basoa, Ibon Pombie eta La Cuniacha bisitatzea. Kotxe partikularretan joan beharko da, eta Piedrafita de Jaca herrian hartuko da ostatua. ||

HERNANI ANTZERKIA

'Pinocchio' eta 'Lur-ikara Kabaret', bihar

Bi antzerki izango dira bihar Hernanin. Aurrenekoa, 6 urtetik gorako haurrentzat izango da: *Pinocchio*. Egurdiko 12:00etan izango da, Biteri kultur etxean, eta ikusi ahal izateko, sarrera erosi behar izango da (3 euro). Bigarrena, *Lur-ikara kabaret* da. Mugarik Gabe, eta Bihotzerre eta Pantzart antzerki-taldeek antolatuta, eta Udalaren babesarekin, egurdiko 13:00etan izango da, Plaza Berrin. Euria egiten badu, aldiz, Atsegindegi plazan izango da. ||

GOIZUETA TXINO AUZOKO FESTAK

Bertso-saioa eta musa, dragoia berotzeko

Asteburu honetan izanen dira Txino auzoko fiestak, eta dragoiaren etorreraren aurretik, berotzeko, bertso saioa eta mus txapelketa izanen dira gaur. Iluntzeko 20:00etan hasita izanen da bertso saioa, Iñaki Zelaia eta Agin Laburrekin batera; eta gaueko 22:30etan hasiko da mus txapelketa. Bihar izanen dute egun handia; goizeko 11:00etan izanen da haur eta gaztetxoek krosa, eta horrekin leher-tuko da festa. Txupinazoa, ordea, ez da egurdiko 12:00ak arte izanen; orduan aterako da dragoia, fiestetako protagonista. ||

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

2019 **IX. Sagardoaren**
ERREMONTE TXAPELKETA

Maiatzak 4: FINALA

Hernaniar guztiak **%60** beherapena (sarrera:10€)

sagardoa + pintxoa - DOAN

 